

# gaz-teak



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

348 zb.  
[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

>> 2020ko Iraila

## Nabarmen<sup>tzekoak</sup>

- > Forzium, Meltown eta Roll it Girl dira Wanted 2020k diruz lagunduko dituen hiru proiektuak
- > El Pobaleko Burdinolarako bisita gaztelekuetatik
- > Gazteria Zerbitzuaren tailer eta ikastaroak, irailetik otsailera

## El Pobaleko Burdinolarako bisita gaztelekuetatik

Gazteria Zerbitzuaren gaztelekuek irteera bat antolatu dute Getxotik bertatik El Pobaleko Burdinola bisitatzeko, datorren urriaren 31n (larunbata).

Muskiz udalerrian dago El Pobaleko Burdinola, Meatzaldearen bihotzean, Barbadun ibaiertzean. Fabrika hidrauliko bat da, eta bertan lantzen zen burdinaren minerala metal bihurtzeko eta era guztietako lanabes eta tresnak egiteko (goldatzeko sareak, mailuak, aitzurrak, pikatxoak...) eta etxean erabiltzeko tresnak, besteak beste. Muñatonos Gaztelutik eskualdea mendean zuen leinuak eraiki zuen burdinola XVI. mende hasieran, Salazar leinuak, alegia. Ospirik handiena XVII. mende amaieran izan zuen; hala ere, gaur egun ikus daitezkeen hainbat eraikuntza eta makineria (sutegia, ikaztegiak, hauspoak, ingudea...) XIX. mendearen amaierakoak dira. Al-daketa horiei esker, 1965 arte iraun zuen martxan burdinolak.

Asmakizun hidrauliko honetarako bisita 11 eta 17 urte bitarteko gazteentzat da, Bizkaiko historia eta ondarea ezagut dezaten. Irteera aipatutako eguneko 11:30ean izango da (izena ematerakoan jakinaraziko da irteera-puntua) eta 15 plaza izango dira. Derrigorrezkoa izango da maskara erabiltzea.

Izena emateko epea urriaren 1ean hasiko da. Informazio gehiago: 944660356 edo [gauegungaztelekua@getxo.eus](mailto:gauegungaztelekua@getxo.eus)



## BEKAK SARIAK

\* **XXXII. Ikertzaile Gazteen Lehiaketa**, Gazteriaren Institutuak eta Unibertsitate Ministerioak deitua, 15 eta 20 urte bitarteko ikasleentzat. 2019-2020 ikasturtean matrikulatutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleek egindako ikerketa-proiektuak aurkeztu ahal izango dira. Izena emateko epea irailaren 16an bukatuko da. Sarien zenbatekoari eta dokumentazioari buruzko informazioa: <https://bit.ly/3gwppwbf>

\* **Bizkaidatz literatura saria: 'Jarraitzeko prest? Orain zure txanda da'**, Bizkaiko Foru Aldundiak deituta, 16 urtetik gorakoentzat. Idazle batek hasitako kontakizun bati jarraipena ematen dioten literatura-kontakizunak aurkeztu ahal izango dira. Euskaraz, Idoia Barrondo Etxebesteren *Ikigai* kontakizunaren hasiera; eta gaztelaniaz, Juan Infante Escuderoaren *El misterio del testamento ológrafo-rena*. Lanak aurkezteko epea: irailak 17. Sarien zenbatekoak eta oinarriak, 2020-07-06ko 127. Bizkaiko Aldizkari Ofizialan.

## Romoko Gaztelekuaren programazioa

Iraila

**Hilak 3, osteguna:** IRTEERA: FUTBOLA  
**Hilak 5, larunbata:** IRTEERA: GYNKANA  
**Hilak 6, igandea:** ASANBLADA: URRIKO PROGRAMAZIO  
**Hilak 8, asteartea:** TAILERRA: GLOBOFLEXIA  
**Hilak 12, larunbata:** TXAPELKETA: PIN PON  
**Hilak 16, asteazkena:** TAILERRA: MUGIKORRERAKO ZORROAK  
**Hilak 19, larunbata:** TXAPELKETA: JUST DANCE  
**Hilak 22, asteartea:** TAILERRA: BUZTINA  
**Hilak 26, larunbata:** IRTEERA  
**Hilak 30, asteazkena:** TAILERRA: KEINU-HIZKUNTZA

GureGune gaztelekua

## Algortako Gaztelekuaren programazioa

Iraila

**Hilak 3, osteguna:** IRTEERA: FUTBOLA  
**Hilak 5, larunbata:** IRTEERA: GYNKANA  
**Hilak 6, igandea:** ASANBLADA: URRIKO PROGRAMAZIO  
**Hilak 8, asteartea:** TAILERRA: GLOBOFLEXIA  
**Hilak 12, larunbata:** TXAPELKETA: PIN PON  
**Hilak 16, asteazkena:** TAILERRA: MUGIKORRERAKO ZORROAK  
**Hilak 19, larunbata:** TXAPELKETA: JUST DANCE  
**Hilak 22, asteartea:** TAILERRA: BUZTINA  
**Hilak 26, larunbata:** IRTEERA  
**Hilak 30, asteazkena:** TAILERRA: KEINU-HIZKUNTZA

GauEgun gaztelekua



## Forzium, Meltown eta Roll it Girl dira Wanted 2020k diruz lagunduko dituen hiru proiektuak

Getxoko gazteen ekimenak sustatzeko, Gazteria eta Ekonomia Sustapen udal arloetatik bultzatutako Wanted 2020 programa zazpi proiektuekin itxi da, aurkeztu diren hamahiru proiektuetatik. Ezohiko edizio bat izan da, pandemiaren egoerak eragindako murrizketak direla eta. Laguntza eta kontrastatze profesionala jaso dute proiektuek, bai eta aholkularitza desberdinak ere, eta horietako hiru aukeratu dira diruz laguntzeko, behin betiko bertsioak aztertuta: Forzium, Meltown eta Roll it Girl.

Forzium Euskadin erreferentia izan nahi duen Esport klub bat sortzeko proiektua da. Proiektua Danel Flor Goikoetxeak eta Asier Jimenez Ruedak osatzen dute, eta 10.000 euroko dirulaguntza jasoko du.

Bigarrena, Meltown, hiriko generoko artistentzako azeleragailu gisa jardungo duen zigilu diskografikoa sortzeko proiektua da. Egitasmoa Pablo Gurrutxaga Cubeirok, Paul Sánchez Crespok eta Antonio Gutierrez

Llanok osatzen dute, eta 7.500 euroko dirulaguntza jasoko du. Hirugarren proiektuak, Roll it Girl, emakume skaterren komunitate inklusibo bat sortzeko helburua du. Proiektua Borja Zubietta Intxaurtietak, Nerea Fernandez-Cuestak eta Gabriela Imbert Lamiquizek osatzen dute, eta 7.500 euroko dirulaguntza jasoko du.

Bestalde, beste lau proiektu kontratatuko dira horiek garatzeko, Getxoko udalerrirako duten interesa dela eta:

Creative Practices, argazkigintzarekin karrera artistikoa garatu nahi duten gazteentzako profesionalizazio-proiektua da. Helena Goñi Alonsoren proiektu bat da eta 5.400 euroren truke kontratatuko da.

Area 48 proiektuaren helburua, Hip Hop ekitaldi bat ospatzea da, zehazkiago, rap inprobisatuaren lehiaketa bat, freestyle edo oilarren eztabaida bezala ere ezaguna. Horren sustatzailerak Leonardo Yair Antelo Salvatierra, Carlos Oyanguren

Romero eta Charles Viruez Salvatierra dira eta 3.400 euroren truke kontratatuko da.

Eta Uni-On. Horren helburua da unibertsitate-graduren bat, erdi-mailako graduren bat edo goi-mailako graduren bat egin nahi duten pertsonen gaur egun ikasketa horiek egiten ari direnekin edo egin dituztenekin konektatzea, azken mailako informazio-trukea errazteko, zer ikasketa aukeratu erabakitze aldera. Gabriel Ramos Carreaga, Arkaitz Santos Ribeiro, Nahia Fernández de Mendiola eta Paula Mediavilla López dira bultzatzaileak eta 3.000 euroren truke kontratatuko da.

Amaltea: proiektuaren helburua herriko gazteentzako moda eta diseinu tailerra eskaintzea da. María Merello Bayo eta Andrea Monrocle Garcíaen proiektu bat da eta 1.760 euroren truke kontratatuko da.

Informazio gehiago hemen: [www.getxo.eus/gazteria](http://www.getxo.eus/gazteria)

## GAZTERIA ZERBITZUAREN TAILER ETA IKASTAROA: IRAILETIK OTSAILERA

IKASTAROA	EGUNAK	ADINA	ORDUTEGIA	HIZKUNTZA	TOKIA
Hip Hop	Azaroak 10, 17 eta 24 eta abenduak 1	18-30	17:30h-19:30	Gaztelaniaz	Algortako Gaztelekua
Kamiseten estanzak	Azaroak 29 eta abenduak 4, 5, 11, 12 eta 18	11-17	18:00h-20:00	Elebietan	Romoko Gaztelekua
Irrati tailerra	Urriak 2, 9, 16 eta 23 eta azaroak 6	11-17	17:30h-19:30	Gaztelaniaz	Algortako Gaztelekua
Senda-belarrak	Urtarrilak 16 eta 23	18-30	10:30-13:00	Gaztelaniaz	Romoko Gaztelekua
Zine Foruma	Urriak 30	11-17	Zehazteke	Gaztelaniaz	Algortako Gaztelekua
Mendian orientatzeko oinarriko teknikak	Urriak 10	18-30	08:30-14:30	Elebietan	Sarria
Urpekaritza bataioa (igerilekuan)	Urriak 24	18-30	16:00-21:00	Elebietan	Bakio
Lana era aktiboan bilatzeko tailerra	Azaroak 14	18-30	09:30-13:30	Gaztelaniaz	Zehazteke
Pilatesen oinarriak	Azaroak 20	15-17	18:00-19:30	Gaztelaniaz	Algortako Gaztelekua
Autodefentsa feminista	Abenduak 12 eta 19	18-30	10:00-12:30	Elebietan	Romo Kultur Etxea
Maskulinitate toxikoa eta bideo-jokoak	Urtarrilak 15 eta 22	11-17	17:30h-19:30	Elebietan	Algortako Gaztelekua
Gazteak sarean	Urtarrilak 30	11-17	10:30-13:00	Elebietan	Romoko Gaztelekua

Argibideak eta izen-ematea doan eta zabalik plazak agortu arte, hemen: **Gazte Bulegoa (Tangora Etxea, Algorta etorb. 98. Tel.: 944.660.35); [gaztebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus) (izena eta egin nahi den ikastaroa edo tailerra adieraziz, harremanetarako telefonoarekin batera); [www.getxo.eus/gazteria](http://www.getxo.eus/gazteria);**